



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO IRAILAREN 13AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2022KO ABUZTUAREN 11KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko abuztuaren 11ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA JAUNAK, ATALLU INDUSTRIALDEKO ORIA KALEA 6AN EZARRITA DUEN PRENTSATZE TAILERRAREN (TALLERES J. M. ZUBIZARRETA) JARDUERA JASOTZAT EMATEA (ESP. ZENBAKIA: HZ.07/2007-0083).

Esp. Zenbakia: HZ.07/2007-0083

JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA jaunak, Atallu industrialdeko Oria kalea 6an ezarrita duen prentsatze tailerraren (TALLERES J. M. ZUBIZARRETA) jarduera baimena eskatu du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2007-0083

ESKATZAILEA: JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA

JARDUERA MOTA: Prentsatze tailerra

NON KOKATUA: Oria kalea, 6 – Atallu industrialdea

JARDUERA EZARTZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko abenduaren 29an, zera erabaki zuen: JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA jaunari, Atallu industrialdeko Oria kalea, 6an prentsatze tailerra (TALLERES J. M. ZUBIZARRETA) ezartzeko udal baimena ematea.

JARDUERA BAIMENA

Orain berriz, 2022ko ekainaren 1ean, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA jaunak, Atallu industrialdeko Oria kalea 6an ezarrita duen prentsatze tailerraren (TALLERES J. M. ZUBIZARRETA) jarduera baimena eskatu du.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Imanol Etxeberria Galarza jaunak, 2022ko abuztuaren 29an honako txostena eman du:

AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA

ATALLU INDUSTRIALDEKO 6AN DEN ERAIKINEAN 8. LOKALEAN ESTANPAZIO TAILERRA EZARTZEKO JARDUERA LIZENTZIA

KOKAPENA: Atallu industrialdeko Oria kalea 6.
ESKAERA DATA: 2007ko otsailaren 27an
ESKATZAILEA: Jose Mari Zubizarreta Mugica
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2022-0083

1.SARRERA

2022ko ekainaren 1ean 2022-2360 zenbakidun sarrera erregistroarekin Jose Mari Zubizarreta Mugicak Atallu industrialdeko Oria kaleko 6an duen Estanpazio tailerraren dokumentazio osagarria aurkeztu du.

Izan ere, barne auditoria batean bezero batek Jarduera Lizentzia eskatu dio eta Udaletik espedientea amaitu gabe zegoela adierazi zitzaion zegokion dokumentazioa aurkeztu ez zuelako.

Ondorengo dokumentazioa aurkeztu du:

- Obra amaierako dokumentazioa eta egindako egokitzapen lanen likidazioa.

2.AURREKARIAK

2010eko urtarrilaren 8an 113 zenbakidun irteera erregistroarekin eginiko jakinarazpenean Jose Mari Zubizarreta Mugica jaunari Atallu industrialdeko Oria kaleko 6an Prentsatze tailerra ezartzeko udal baimena eman zitzaion ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen akta lortu arte , inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak aldeztu aurretik Udalarri eskatu beharko du Egiaztapen hori burutzea. Eskaerarekin batera aurkeztuko da, Obra eta Instalazioetako Zuzendari Teknikoak, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean Industria Sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.

3.TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztu duen Obra Amaierako dokumentazioa aztertu dut eta ondorengoak aipatu nahi ditut:

- 2010 urtean jarduera egokitzeko baimendutako lanek 23.349,28 €ko aurrekontua



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

zuten. 2022ko ekainaren 1ean aurkeztutako lanen obra amaierako likidazioa aldiz 120.643,20 € koa da.

Likidazioa aztertu da eta besteak beste, solairuartekoa eraiki dela eta zubi grua bat jarri dela ondorioztatu da.

2007 urtean Eneka S.L. idatziriko jarduera proiektua eta egokitzapen lanen proiektuaren planoan solairuartekoa marraztua bada ere, ez zen solairuartekoaren legestatzea tramitatu. Bestetik, zubi gruaren instalazioaren egokitzapena bermatzen duen dokumentaziorik ez da aurkeztu.

Solairuartekoa eta zubi gruaren instalazioa egun indarrean diren araudiekin bateragarriak direnez, beraien legestatzea tramitatu beharko da. Izan ere, 2010eko martxoaren 10ean Udal Arkitektoak eginiko txostenean, solairuartekoaren eraikitzea baimentzeko harren exekuzio proiektua aurkeztu behar zela ohartarazi zuen.

Bestetik, jarduera berria ezarri zen kokagunea lurzorua kutsa zezakeen jarduera jasan duen lursailen inbentarioan ez zela bermatu zen.

2009ko banedua 17an 5320 zenbakidun sarrera erregistroarekin Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Prentsatze tailer jarduera berriaren neurri zuzentzaileak helarazi zituen.

2022ko ekainaren 22an eguerdiko 12:00 etan jardueraren titularrarekin batera jardueraren ikuskapen azterketa egin dut.

Gauzak honela, hona hemen nire proposamena:

BAT: Jose Mari Zubizarreta Mugicak Atallu industrialdeko Oria kaleko 6an duen Estantazio tailerraren jarduera jasotzat ematea ondorengo baldintzekin:

– Jarduerak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

BI: Obra baimen eskubideengatik aurrekontua eta likidazioaren artean diren 97.293,92 €-ri dagokion zergak ordainarazi beharko da.

HIRU: Solairuartekoaren legestatzearekin amaitzeko EKT-ES (egituraren segurtasuna) zuritu beharko da eta solairuartekoaren lehen erabilera baimena eskatu beharko da. Halaber, zubi gruaren instalazioaren dagokion EKT-ES zuritu beharko da eta instalazioaren egokitasun dokumentazioa aurkeztu beharko da.

LAU: jarduera baimena emateagatik indarrean diren ordenantza fiskalek ezartzen duten zergak ordainaraztea, baimentzen den jarduera industrialak izanik eta jardueraren azalera 500 metro karratukoa dela kontuan izanik.

Usurbilen, sinadura data
Udal aparejadorea

Gauzak horrela, udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JOSE M. ZUBIZARRETA MUGICA jaunak, Atallu industrialdeko Oria kalea 6an ezarrita duen prentsatze tailerraren (TALLERES J. M. ZUBIZARRETA) jarduera jasotzat ematea, ondorengo baldintzapean:

- Jarduerak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, hala nola Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak bete beharko ditu. Honakoak hain zuzen:

Osasun Sailak ezarritakoak, ondokoak dira hitzez hitz:

- 833/88 Errege dekretuak, uztailaren 20koak, zehazki I eranskinean agintzen duenaren arabera, kudeatzaile baimenduak jasoko ditu jarduerak eragindako hondakin arriskutsuak eta debekatuta egongo da saneamendura edo ubide publikoetara isurketa egitea eta 952/1997 Errege dekretuak agintzen duena beteko da.
- Berariazko udal-arauen kaltetan gabe ez dira 60 dB (A) gaindituko alboko industri jardueretan.
- Isurketak egin ahal izateko aginpidea duen erakundeak emandako baimena eduki beharko da.
- Segurtasun industrialeko araudiari lotutako instalazio teknikoak legeztatu egin beharko dira.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ezarritakoak ondokoak dira hitzez hitz:

- Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.
- Lurren mugimenduak burutzea ekarriko duten obrei ekin ezker, jardueraren titularrak induskatuko diren materialak (lurrak, obra-hondakinak etab.) karakterizatu beharko ditu jarduera kutsatzaileraren baten eragina izan duten egiaztatzeko xedez eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, hauek kudeatzeko bide egokiena ezarri.

Aurreko atalean adierazitako karakterizazio horretan lorturiko emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira berauen baloraziorako, eta hori kudeaketa egin aurretik.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikulua dioenez, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Udaletxeari eta Ingurumen Sailburuordetzari, horiek hartu beharreko neurriak zehaztu ditzaten.

- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritako lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularren eginbeharrak betearazi beharko ditu sustatzaileak, bereziki jarduera edo instalazioa bukatu edo ixten denean lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen-prozedura hasteari dagokionean
- Edozein kasutan, hurbilen dauden bizitegirako hiri-lurzoruko etxebizitzetan ezin izango da 40 dB(A) eta 30 dB(A) gainditu 8:00 eta 22:00etatik aurrera hurrenez hurren Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, ezta 45 dB(A) eta 35 dB(A) ere gehieneko baliorik altuenetan. Era berean ez da 60 dB(A)ko maila gaindituko ondoko industria-jardueratan, dagokion udal-araudiaren kalterik gabe.
- Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
- Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez.
- Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren bi sare edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - Hondakin-uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira. Irekitzeko lizentzia jaso aurretik, titularrak saneamendu-sarera Isurtzeko Baimena (erakunde aginpidedunek emandakoa) aurkeztu beharko du Udaletxean.
- Komunetan sortutako isurketa likidoak baino ez dira egongo.
- Sortutako hiri edo udal-hondakinak, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
- Jardueran sortutako hondakin ez-arrakutsuak kudeaketa-instalazio batera lehen aldiz eraman aurretik, jardueraren titularrak informazio hau eman beharko dio ingurumen-organoari, proposatuko kudeaketa-bidea egokia den egiaztatu ahal izateko: sozietatearen izena, IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea), jarduera, ekoizpen-prozesuak, erabilitako lehengaiak, sortutako



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

hondakin ez-arriskutsuen kopurua eta motak, Europako hondakin-zerrendaren arabera identifikatuak, eta proposatutako kudeaketa-bidea. Adierazpen horretarako, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko denaren, VI. Eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko da.

- Olio-hondakinak eta oro har, arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta gai arriskutsuak izan ditzaketen hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak, inprimatzeko tonerrak, etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien bereizketa-baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/98 Legeak, 833/1988 Errege Dekretuak eta hau aldatzen duen 952/1997 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Eraman aurretik estalita biltegitratu beharko dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak formalizatutako hondakin arriskutsuen sortzaile Baimena aurkeztu beharko da Udaletxean. Aurrerantzean urtero hondakin arriskutsuen sortzaile deklarazioa aurkeztu beharko da aipatutako sailean.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren aurka, urtean 10.000 kg baino gutxiago sortzen badira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean dagoen hondakin arriskutsuen sortzaile txikien Erregistroan egin beharko da inskripzioa.

- Hondakin-olioak Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioien kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretuak dioena jarraituz bilduko dira, erabilitako industria olioien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuak adierazten duenaren kalterik gabe.
- Aurkezten dituen ezaugarri kimikoengatik lurzorua eraldatu edo kutsatzeko gai den edozein produktu moten (beharrezko lehengaiak eta/edo jardueran sorturiko hondakinak) biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontua izanik egingo da, beti ere biltegitratutako produktuei iragazgaitz, erresistente eta eraldaeizina izango den, eta istripuz gerta daitezkeen isurketei eustea ahalbidetzeko eran diseinatu eta instalaturikoa egongo den lurzoru gainean, era berean hauek jasotzeko sistema batez hornitua egongo delarik. Honetaz gain, haizea, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
- Uretan edo lurzoruan kutsadura sor lezaketen likidoen isuriak sor ditzakeen makineriak likido horien erretentziorako kubeto estanko bat eduki beharko du eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Kubetoaren bolumena gordetzen dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

- Erabilitako olioek isurketa akzidentalak biltzeko egokia izango den material xurgatzailea eduki beharko da tailerrean.
- Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
- Debekatua geratzen da mekanizatuaren desberdina den edozein ekoizpen jarduera garatzea (margotzea, soldadura, etab.).
- Industria gaitan eskumena duen erakundeak emandako dokumentazio egiaztatzailea aurkeztu beharko du jardueraren titularrak Udaletxean, modu egokian izapidetua, bere eskumenekoak diren ekipamendu eta instalazioei dagokienez.
- Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
- Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.

BIGARRENA: Obra baimen eskubideengatik aurrekontua eta likidazioaren artean diren 97.293,92 €-ri dagokion zerga ordainarazi beharko da.

HIRUGARRENA: Solairuartekoaren legeztatzearekin amaitzeko EKT-ES (egituraren segurtasuna) zuritu behar da, solairuartekoaren lehen erabilera baimena eskatuz. Halaber, zubi guaren instalazioaren dagokion EKT-ES zuritu behar da, instalazioaren egokitasun dokumentazioa aurkeztuz.

LAUGARRENA: Jarduera baimena emateagatik indarrean diren ordenantza fiskalek ezartzen duten zergak ordainaraztea, baimentzen den jarduera industrial izanik eta jardueraren azalera 500 metro karratukoa dela kontuan izanik.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- ONDAREGI XXI, S.L. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO ATALLU KALEA 2-4AN TELEKOMUNIKAZIO-EKIPOEN EKOIZPENERAKO JARDUERA EZARTZEKO, ERABERRITU DUEN PABILOIAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2021-0311).

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2021-0311

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 31ean, ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko, pabiloia eraberritzeko obretarako udal baimena ematea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	690.310,19 €
PEM (Obra amaierako ziurtagiria):	690.310,19 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.879,33 €
	Fidantza (%120): 3.455,20 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraberritutako pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatu du ONDAREGI XXI, S.L. enpresak.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko abuztuaren 26an honako txostena eman du:

GAIA	Atallu kaleko 2-4 zenbakian kokatutako pabiloiaren barne egokitzapena egiteko udal baimena
ESKATZAILEA	Jokin Idarreta Cardona
ESKAERA DATA	2021/VIII/06
ERREGISTRO ZENBAKIA	2021-2824
ESPEDIENTE ZENBAKIA	HZ.04/2021-0311
PEM	Exekuzio Proiektua: 690.310,19 € (BEZ gabe) Obra amaierako ziurtagiria: 690.310,19 € (BEZ gabe)
HKA (EGR)	2.879,33 EURO -> FIDANTZA (%120) = 3.455,20 EURO (IE 62 2022-00-000001-000).
AZALERA	595,82 m ² (Bulegoak) + 3.437,83 m² 2.842,01 m ² (Pabilioia)
ERLAZIONATUA:	HZ.07/2021-0171: Atallu industrialdeko Atallu kaleko 2-4 zenbakian telekomunikazio-ekoizpenerako jarduera baimena

A. AURREKARIAK

A.1. 2021eko abuztuaren 6an, ONDAREGI XXI SL enpresak Atallu industrialdeko



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Atallu kalea 2-4 zenbakietan kokatutako pabiloia eraberritzeko obra baimena eskatu zuen Usurbilgo Udalean.

A.2. Lizentzia eskabidearekin batera proiektu hau aurkeztu zen:

Proyecto de Ejecución para el acondicionamiento interior de un pabellón, en el término municipal de Usurbil.

Proiektuak atal hauek ditu:

- Memoria eta eranskinak.
- Planoak.
- Baldintza tekniko partikularren agiria.
- Aurrekontua (690.310,19 euro, BEZik, gastu orokorrik eta industria-mozkinik gabe).

A.3. 2021eko abenduaren 27an, interesatuak obra partzialaren baimen eskaera egin zuen.

A.4. 2022ko urtarrilaren 12an, Nekane Azarola Martínez abokatuaren txostena. Bertan, besteak beste, honako hau adierazten da:

(...) edozein jardueratatik aparte egin daitezkeen obrak baimendu ahal izango dira. Hau da, obra orokorrak.

A.5. 2022ko urtarrilaren 14an, udal arkitektoaren obra partzialaren aldeko txostena.

A.6. 2022ko urtarrilaren 13an, interesdunak Jokin Idarreta Carmona ingeniari zibilaren Teknikari Tituludun Gisa Aritzeko Aitorpena aurkeztu du Usurbilgo Udalean.

A.7. 2022ko urtarrilaren 14an, 32/2022 Dekretuaren bidez, ONDAREGI XXI SL enpresari Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an kokatutako pabiloia eraberritzeko obretarako baimen partziala ematea erabaki zen, baldintza bereziekin.

Ezarritako baldintzen artean honako hau zegoen:

Udal baimen honek estalkia eta aurrealdearen berritze, eta eraisketa puntua-lei dagokien partidak baimentzen ditu soilik. Obra proiektuan jasotzen diren gainerako lanak lortzeko baimen osoa beharko da (...)

A.8. 2022ko urtarrilaren 17an, hondakinak behar bezala kudeatzeko fidantza ezarri da (3.455,20 euro)(IE.62.2022-00-000001-000).

A.9. 2022ko otsailaren 2an, Ana Amenabar Indok dokumentazio hau aurkeztu zuen Usurbilgo Udaletxean:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

- Eskaera orria.
 - Jokin Idarreta Carmona ingeniari zibilak, teknikari eskudun kolegiatuak, sinatutako exekuzio proiektua.
 - Teknikari tituludun gisa aritzeko aitortpena.
 - Erantzukizun zibileko aseguruaren ziurtagiria.
- A.10. 2022ko martxoaren 15ean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren txostena jaso zen, jarduerari dagokion **neurri zuzentzaileen ezarpenari** buruzkoa.
- A.11. 2022ko martxoaren 30ean, udal arkitektoak DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL enpresak **jarduera sailkaturako** lizentzia eskatzearen **aldeko txostena** egin zuen.
- A.12. 2022ko maiatzaren 6an, Ana Amenabar Indo jaunak, Ondaregi XXI SL enpresaren ordezkartzen, Herri Lanetako Ingeniari Teknikoen Elkargoak ikus- onetsitako proiektua aurkeztu du.
- A.13. 2022ko maiatzaren 17an, udal arkitektoak obra baimenaren aldeko txostena egin zuen.
- A.14. 2022ko maiatzaren 31n, Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuen: Ondaregi, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu Kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko pabiloia eraberritzeko **obretarako udal baimena** ematea.
- A.15. 2022ko abuztuaren 11n, Ana Amenabar Indo andereak, ONDAREGI XXI SL enpresaren izenean, (sarrera erregistroa: 2022-3482 eta 2022-3486) agiri hauek aurkeztu ditu:
- Obra amaierako proiektua.

B. TXOSTENA

- B.1. Aurrekarietan adierazi den bezala, 2021eko abuztuaren 6an Usurbilgo Udalean aurkeztu zen Usurbilgo udal mugapean pabiloi bat egokitzeko exekuzio proiektua.
- B.2. **JARDUERA BAIMENA:** 2022ko martxoaren 30ean, udal arkitektoak DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL enpresak jarduera sailkaturako lizentzia ematearen aldeko txostena egin zuen.

2022ko maiatzaren 31n, Tokiko Gobernu Batzarrak, ONDAREGI XXI SL enpresari Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko, pabiloia eraberritzeko **obretarako udal baimena** erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

2022ko ekainaren 6an Danfoss Power Solutions Telecontrol SL, enpresari zera jakinarazi zitzaion:

(...) jarduera martxan jarri aurretik, aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu beharko dela instalazioan hasteko prestatuta daudenean. Ezinbestekoa izango da aldez aurretik ONDAREGI XXI, S.L. enpresak pabiloia eraberritzeko egindako obren lehen erabilera baimena eskuratzea.

B.3. **KOKALEKUA:** Lehen erabilera-baimenaren xede den industria pabiloia helbide honetan dago:

– Atallu kalea, 2-4, 20170, Usurbil, Gipuzkoa.

B.4. **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:** lehen erabilera-baimenaren eskaerarekin batera, aurkeztutako dokumentazioa honako hau da:

– *Usurbilgo Herrian, Pabiloi Baten Barne Egokitzapenaren Obra Amaierako Proiektua*

Jokin Idarreta Cardona ingeniari zibilak sinatutu proiektu hori, eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi du (Colegio de Ingenieros Técnicos de Obras Públicas:68220093PC/1).

Proiektua osatzen duten dokumentuak honakoak dira:

- Memoria.
- Obra amaierako ziurtagiria.
- Harrera-akta.
- Kalitate kontrola.
- Egindako obren planoak.
- Obra amaierako ziurtagiria.
- Argazki-erreportajea.
- Agindu eta akten liburua.
- Hondakinen kudeaketa.
- Instalazioak legeztatzea.

B.5. **PROIEKTUAREN ALDAKETAK:** Obra amaierako memorian zehazten denaren arabera, burutu den obran zenbait aldaketa egin dira Usurbilgo Udaletxean aurkeztu zen Exekuzio Proiektuarekin alderatuta.

(...) debido a imprevistos generados durante de la obra y a nuevos requerimientos por parte de la empresa que va a desarrollar su actividad en el pabe-



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Ilón, se han realizado una serie de modificaciones respecto a la propuesta descrita en el Proyecto de Ejecución.

Honakoak izan dira egin diren aldaketak:

Bulego atalean:

- Aldaketa txiki batzuk proposatutako hasierako banaketan.
- Aldaketak aldageletan.

Industria atalean:

- Eremuen azpizatiketetan aldaketa txikiak egin dira.
- Osasun sailak sukaldeari buruz ezarritako baldintzak bete dira.

B.6. **Markesinak:** Proiektuan adierazten denaren arabera, hiru markesina egin dira, proiektuan aurre ikusita ez zeudenak, bata kamioientzat, bestea aire konpresorearentzat eta azkena autoentzat.

Kamioientzako markesina hegalean daude, autoak aparkatzeko markesina eta aire konpresorerako, berriz, metalezko egitura propioa dute. Ondoren atxikitzen dira bi markesina horien argazkiak:

Markesina horiek ez ziren udal-baimenean aurreikusten. Hala ere, euren izaera desmuntagarria ikusita, ontzat ematen dira.



B.7. **IRISGARRITASUNA:** Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak ezartzen duenez, egungo erabilera edo zerbitzu publikoko eraikin eta lokalak berritu, handitu edo aldatzeko obrak egiteko, haien irisgarritasuna bermatzen duten eskakizun funtzional eta dimentsioei jarraituko zaie.

Industria-erabilerarako eraikin edo instalazioek, jendeari zabaldutako



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

eremuetan, onarpen-eskubidea erreserbatuta izanik ere, bide publikorako irisgarritasuna eskainiko dute eta jendeari erantzuteko eremu bat izango dute, bai eta gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako irisgarritasuna izango duen komun bat ere.

Aurkeztutako agirian justifikatzen da 68/2000 Dekretua betetzen dela.

B.8. **INSTALAZIOAK LEGEZTATZEA:** aurkeztutako dokumentazioan, ondorengo instalazioen legeztapenaren agiriak daude:

- **Suteen aurkako instalazioa:** Industria eta industria ez diren establezimenduetan suteen aurkako babesa zerbitzuan jartzeko jakinarazpena aurkeztu izanaren ziurtagiria aurkeztu da.
- **Instalazio elektriko.**
- **Klimatizazio- eta aireztatze-instalazioa.**

B.9. **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** 112/2012 Dekretuak ezartzen duen bezala, Usurbilgo Udalak dagokion fidantza eskatu zuen obra nagusiko eraikuntza- eta eraispn-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, dagokion hirigintza-lizentzia lortzeko baldintza gisa.

Fidantza horren zenbatekoa kalkulatzeko, 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituko zitzaien:

Kasu honetan, hondakinen kudeaketari proiektuan dagokion zenbatekoa 2.879,33 eurokoa zen; beraz, **3.455,20 euroko fidantza** eskatu zen (% 120).

Aurrekarietan aipatu den bezala, 2022ko urtarrilaren 17an, hondakinak behar bezala kudeatzeko fidantza ezarri zen. (IE 62 2022-00-000001-000).

Hondakinak behar bezala kudeatzen direla egiaztatzeko eta dagokion fidantza itzultzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatutako txostena aurkeztu beharko da (112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera egina). Txosten hori entitate independente akreditatu batek egiaztatu beharko du.

Obra amaierako dokumentazioaren artean Eraikuntza- eta Eraispn-Hondakinen Kudeaketari Buruzko Azken Txostena dago.

Hala ere, ez da aurkeztu txosten hori erakunde independente akreditatu batek egiaztatu izanaren egiaztagiria. 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ingurumen-organoak bultzatutako erakunde independente batek egiaztatu behar du txostena.

Fidantza itzultzeko, entitate akreditatu independente batek egiaztatutako txostena aurkeztu beharko da. Horretarako hilabeteko epea ematen da.

B.10. **IBIa:** ez da ibilgailuak espaloietan zehar finken barrualdera sartzeko baimenik eskatu. **IBI lizentzia eskatu beharko da**, aparkatzeko plazen kopurua eta beharrezkoak diren metro linealak adierazita.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Hurrengo irudian erakusten da, IBla behar duen sarrera-irteera.



Bestetik, kontuan izan behar da, ThyssenKrupp enpresak kamioi sarrera zuela iparraldeko fatxadatik; hortaz, auto-pasabidea zuen alde horretatik. Gaur egun, sarrera horiek kendu dira, beraz, ezin izango da espaloia autoekin okupatu. Aparkaleku plaza berriak margotu ahal izango dira. Plaza berriak margotzeko udal teknikariek adostuko da.





Usurbilgo Udala


Data: 2022/09/13

B.11. **OSASUN SAILAREN TXOSTENA:** 2021eko maiatzaren 24an, Osasun Sailaren txostena jaso zuen Usurbilgo Udalak. Txosten horretan informazio osagarria eskatzen zen

2021eko urriaren 22an Osasun Sailak txosten berria egin zuen. Txosten horretan proiektuak bete beharreko neurriak ezartzen ziren. Neurri horiek honako hauek ziren:

- *Sukaldea ez dago jantoki/self service gunetik behar adina isolatuta.*
- *Garbiketa eremua self service gunetik behar bezala isolatuta egon beharko da, kutsadura edo zipriztinak saihesteko, eta aireztapen egokia eta nahikoa izan beharko du.*
- *Biltegia sukalde eta prestaketa esparrutik erabat bereizi behar da.*
- *Establezimenduaren arduradunak jantoki kolektiboaren jardura jakinarazi egin beharko du tramitazio elektronikoaren bidez edo Osasun Publikoko Tolosa-Goierrri eskualdera bertaratuz (Nafarroako Etorbidea,6 - 20400 Tolosa; Tel. 943 02 40 24).*
- *3484/2000 Errege Dekretua, abenduaren 29koa (EAO 11, 2001-01-12koa), janari prestatuak lantzeko, garraiatzeko eta saltzeko higiene-arauak ezartzen dituena.*
- *Agindua, 2002ko martxoaren 15ekoa, Osasun sailburuarena, jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena.*

Aurretik aurkeztutako sukalde-jangela proposamena honako hau zen:



Aurkeztutako dokumentazioan zehar ziurtatzen da, txostenean ezarritako baldintzak betetzeko beharrezkoak ziren aldaketak egin direla:

(...) se han incorporado los requerimientos realizados por parte del departamento de Salud del Gobierno Vasco, considerando que se cumplen así todas las condiciones exigidas.

Gainera, **memoriaren 4.1 atalean Osasun sailak ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu egiten da.**

Se asegura el cumplimiento de las condiciones establecidas en el Real Decreto 3484/2000 y la Orden de 15 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad.

Osasun sailaren txostenean adierazten den moduan, **establezimenduko arduradunak jantoki kolektiboaren jardueraren berri eman beharko du**, izapide elektronikoen baten bidez edo Tolosa-Goierriko Osasun Publikoan bertan.

- B.12. **NEURRI ZUZENTZAILEAK:** 2022ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren txostena jaso zen Udalean. Bertan telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerakoren jarduerari dagokion neurri zuzentzaileak ezartzen ziren.

Aurkeztutako dokumentazioan zehar ziurtatzen da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren txostenean ezarritako baldintzak betetzen direla.

- B.13. **AURREKONTUA:** aurkeztutako obraren aurrekontua 690.310,19 eurokoa zen, BEZ kanpo.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Aurkeztutako Obra amaierako ziurtagirian ziurtatzen da, egindako lanak zenbateko horrekin bat etorri direla. Obra gauzatzeko aurrekontua **690.310,19 eurokoa** izan da.

B.14. OBRA BISITA: 2022ko abuztuaren 26an obra bisita egin da. Udal Teknikariek egindako ikuskapenean eraikitakoa aurkeztutako dokumentazioarekin eta ezarritako baldintzekin bat datorrela egiaztatu da.

Beraz, obra bukatutzat ematen da.

B.15. AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA: Obra bukatuta, jardueraren hasiera aurretiazko komunikazio-erregimenari lotuko zaio jardueraren hasiera.

Aurretiazko komunikazioa ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztuko da:

- Memoria bat, jardueraren deskribapena eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko ezarritako neurriak jasotzen dituena.
- Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria, jarduera eta/edo instalazioak eraikuntza-proiektuarekin eta aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datozela eta ingurumen-baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen duena, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotakoak barne, hala badagokio.

Jakinarazpena eginda, jarduera aurretiazko komunikazioa aurkezten den egunetik hasi ahalko da.

C. ONDORIOAK

C.1. Teknikari honek, alderdi juridikoak izan ezik, uste du aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela, eta egindako lanak obra-baimenarekin bat datozela, txosten honetako B atalean azaldu den moduan; beraz, bidezkoa da, honako hau ematea:

- Atallu kalea 2-4 zenbakietan kokatutako pabiloiaren **LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

C.2. Baimena hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

C.3. Jarduera hasi aurretik **ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENA** aurkeztu beharko zaio Udalari, instalazioak erabiltzeko prestatuta daudenean. Jakinarazpen horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 3/1998 legeak ezartzen duen dokumentazioa (62. bis artikulua):
 - Memoria.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

- Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria.
- C.4. Dekretu honen edukiaren berri ematea **Kontu-hartzailletza Sailari**, honako hauei dagokienean:
- Obra lizentzia emateko **Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergaren behin betiko likidazioa**. Aurkeztutako azken likidazioaren arabera, **690.310,19 eurokoa da**. Ondorio horietarako, kontuan izan behar da hasierako likidazioa 690.310,19 euroko aurrekontuaren gainean egin zela.
 - Lehen erabilera-baimenari dagozkion udal-tasak ordaindu beharko dira.
- C.5. Obren sustatzaileari jakinaraztea jarduera martxan jartzeko, aurretiazko komunikazioa egitea beharrezkoa izango dela. Aurretiazko komunikazioarekin batera honako hauek aurkeztuko dira.
- **Osasun sailaren txostenean adierazten den moduan, establezimenduko arduradunak jantoki kolektiboaren jardueraren berri eman izanaren ziurtagiria.**
 - **IBI lizentzia eskatu beharko da, aparkatzeko plazen kopurua eta beharrezkoak diren metro linealak adierazita.**
- C.6. Interesdunari jakinaraztea **HILABETEKO (1) epean** hau aurkeztu behar duela:
- Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko eta dagokion fidantza itzultzeko, aurkeztutako txostena entitate independente akreditatu batek egiaztatu beharko du. Beraz, txostena berriro aurkeztu beharko da.
- C.7. Interesatuari gogorarazi behar zaio espaloia beheratuta egon arren ezin dela haren gainean aparkatu. Aparkaleku berriak markatu nahi badira, aldeztatik udal zerbitzuei galdetu beharko zaie.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko, eraberritu duen pabiloia lehenera erabilera baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Baimena hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Jarduera hasi aurretik **ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENA** aurkeztu beharko zaio Udalari, instalazioak erabiltzeko prestatuta daudenean. Jakinarazpen



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- x 3/1998 legeak ezartzen duen dokumentazioa (62. bis artikulua):
 - x Memoria.
 - x Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria.
 - x **Osasun sailaren txostenean adierazten den moduan, establezimenduko arduradunak jantoki kolektiboaren jardueraren berri eman izanaren ziurtagiria.**
 - x **IBI lizentzia eskatu beharko da, aparkatzeko plazen kopurua eta beharrezkoak diren metro linealak adierazita.**
- Interesatuari gogorarazi behar zaio espaloia beheratuta egon arren ezin dela haren gainean aparkatu. Aparkaleku berriak markatu nahi badira, aldez aurretik udal zerbitzuei galdetu beharko zaie.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2022ko urtarrilaren 17an ezarritako 3.455,20 €-tako fidantzari (IE 01-2022) dagokionez, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita hilabeteko epea ematen zaio interesatuari hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkezteko.

Hala egin ezean, Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, udal kontuhartzaitzak fidantza exekutatu du fidantzaren dirua ingurumena hobetzeko jarduerak egiteko bideratuz. Interesdunak fidantza galduko luke.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari emango zaio, honako hauei dagokienean:

- Obra lizentzia emateko **Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergaren behin betiko likidazioa**. Aurkeztutako azken likidazioaren arabera, **690.310,19 eurokoa da**. Ondorio horietarako, kontuan izan behar da hasierako likidazioa 690.310,19 euroko aurrekontuaren gainean egin zela.
- Lehen erabilera-baimenari dagozkion udal-tasak ordaindu beharko dira.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

4.- DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L. ENPRESARI, ATALLU KALEA 2-4AN TELEKOMUNIKAZIO-EKIPOEN EKOIZPENERAKO JARDUERA SAILKATURAKO LIZENTZIA EMATEA (ESP. ZENBAKIA: HZ.07/2021-0171).

Esp. Zenbakia: HZ.07/2021-0171



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L. enpresak, Atallu kalea 2-4an ezarri nahi duen telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera aurkeztu zuen, dagokion izapidea izan zen.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2021-0171

ESKATZAILEA: DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L.

JARDUERA MOTA: Telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera

NON KOKATUA: Atallu kalea, 2 – 4 / Atallu industrialdea

JARDUERAREN IZAPIDETZEA

DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L. enpresak aurkeztutako jarduera proiektuak honako izapidetzea izan du:

1. Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 229. zenbakia, 2011ko abenduaren 2an). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.
2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2011ko abenduaren 26an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 4565 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.
3. Udal arkitektoaren aldeko txostena kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2012ko urtarrilaren 31n aldeko informea eman zuen.
4. Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen. 2022ko martxoaren 15ean jakinarazi zigun honen berri.

TXOSTEN TEKNIKOA

Guzti hau kontuan izanik, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko martxoaren 30ean honako txostena eman du:

GAIA	Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera
ESKATZAILEA:	Jokin Idarreta Cardona
ESKAERA DATA:	2021/V/06
ERREG. ZBKIA:	HZ.07/2021-0171
ESP. ZBKIA:	2021-1629
ERLAZIONATUA:	HZ.04/2021-0311: Atallu industrialdeko Atallu kalean 2-4an kokatutako pabiloia eraberritzeko udal baimena.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

D. AURREKARIAK

D.1. 2021eko maiatzaren 6an, DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL SL enpresaren izenean Atallu industrialdean, Atallu kaleko 2-4 zenbakietan telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera baimena eskatu zen Usurbilgo Udalean.

D.2. 2021eko maiatzaren 20an Osasun sailaren txostena jaso zen, non dokumentazio osagarria eskatzen zen.

2021eko abuztuaren 10ean, interesdunak eskatutako informazio osagarria eman zuen. Dokumentazio hori Osasun Departamentura bidali zen.

D.3. 2021eko ekainaren 1ean udal arkitektoaren txostena honakoa esanaz:

Edozein jarduera ezarri aurretik, lurzoria kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lursailentzat legeak finkatutako prozedurak betetzea eskatzen da.

D.4. 2021eko urriaren 29an mugakideei jakinarazpena helarazi zitzaion.

D.5. 2021eko azaroaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen, espedientea 15 lanegunez jendaurrean egongo dela adieraziz.

D.6. 2021eko azaroaren 22an Osasun sailaren aldeko txostena jaso zen, baldintzatuta.

D.7. 2021eko abenduaren 20an Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren txostena jaso zen, zeinean jarduera instalatu nahi den lurzoria industriadarako egokia dela adierazten den.

D.8. 2021eko abenduaren 23an DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL SL enpresari telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduerari Aldeko informea ematea erabaki zen.

Erabaki horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera espediente osoa bidaltzea eta erabakiaren berri ematea erabaki zen, Neurri Zuzentzaileak ezartze aldera.

D.9. 2022ko otsailaren 2an Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren jakinarazpena jaso da Usurbilgo Udalean. Bertan zera ezartzen da:

(...) abian diren prozedurak hasi zenean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetzen jarraituko direla. Horrenbestez, erreferentziako espedientea (...) 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako prozeduraren arabera izapidetu behar da, eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzari dagokio jarduera zuzentzeko neurri buruzko txostena egiteko eskumena.

D.10. 2022ko martxoaren 15ean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren txostena jaso zen, jarduerari dagokin neurri zuzentzaileen



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

ezarpenari buruzkoa.

E. TXOSTENA

E.1. Aurrekarietan esan bezala, DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL SL enpresaren izenean, Atallu Industrialdean, Atallu kaleko 2-4 zenbakietan, telekomunikazio ekoizpenerako jarduera sailkatu baimena eskatu da.

E.2. **KOKALEKUA:** Lizentziaren xede den industria pabiloia helbide honetan dago:

– Atallu kalea, 2-4, 20170, Usurbil, Gipuzkoa.

E.3. Pabiloia, indarrean dagoen Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, hiri-lurzoruan dago, zehazki, **A-104 (C/SE) ATALLU** eremuan.

E.4. Hona hemen eremuaren ezaugarrien fitxan ezarritako determinazio batzuk:

– **Irizpide eta helburuak:** *Planeamendua garatua eta partzialki eraikia eta urbanizatuzko industri lurzoru berria hiri lurzorura gehitzea, lekuko industriaren zabalpenaren beharrari bide emateko.*

– **Erabilerak.** *Erabilera industrial izango da, garbigunearen kasuan izan ezik.*

Solairuan okupaturiko azaleraren %50 gaindituko ez duen tarteko solairua eraiki ahal izango da, bulego, komun edo antzeko erabileretako.

– **Eraikuntzen baldintzak:** *Eraikuntzen baldintzak behin betiko onartutako Plan Partizalak ezarritakoak izango dira.*

Gehiengo altuera eraikigarria, 9 m. Altuera handiagoa beharrezkoa balitz, ekoizpen sistemagatik justifikatua izango da.

Gehiengo azalera industrial eraikia 1'5 m²/m² (patzela okupatuaz konputaturik).

E.5. **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK:** Dokumentuan esaten den bezala:

La nueva actividad propuesta para las naves de este pabellón es la desarrollada por la empresa Danfoss: el diseño y la fabricación de sistemas de control remoto.

Lehen esan bezala, A-104 ATALLU eremuaren erabilera bereizgarria industriarako da, garbigunearen kasuan izan ezik.

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9. artikulua ezartzen duenez, industria erabileren artean jarduera hauek sartzen dira: *Era guztietako produktuen erdiespen eta eraldaketazko industriak jasotzen ditu, beraz, ezarri*



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

nahi den jarduera onargarria da.

- E.6. **LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERA EDO INSTALAZIOAK:** Udal arkitektoak, jardueraren egokitasuna aztertu aurretik, lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lursailentzat legeak finkatutako prozedurak betetzea eskatu zuen.

Horrela, 2021eko abenduaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailaren ingurumen txostena jaso zen udalean.

Honela dio bertan:

Primero.- Declarar como suelo apto para uso industrial, (...) el correspondiente a parte de la parcela anteriormente ocupada por Thyssenkrupp Materials Ibérica, SA (...) Cabe señalar que la validez de esta Declaración de Aptitud del Suelo para la implantación de una nueva actividad queda condicionada a que el futuro uso del pabellón siga siendo industrial, o equiparable a industrial a efectos de la Ley 4/2015, de 25 de junio, y a que dicha implantación no requiera realizar movimientos de tierra o eliminación de solera (...).

- E.7. **OSASUN SAILAREN TXOSTENA:** 2021eko azaroaren 22an Osasun sailaren aldeko txostena jaso zen Usurbilgo Udalean.

Hala ere, txosten horretan baldintza hauek ezarri dira:

- *Sukaldea ez dago jantoki/self service gunetik behar adina isolatua.*
- *Garbiketa eremua self service gunetik behar bezala isolatuta egon beharko da, kutsadura edo zipriztinak saihesteko, eta aireztapen egoki eta nahikoa izan beharko du.*
- *Biltegia sukalde eta prestaketa esparrutik erabat bereizi behar da.*
- *Establezimenduaren arduradunak jantoki kolektiboaren jarduera jakinarazi egin beharko du (...)*
- 3484/2000 Errege Dekretua eta 2002ko martxoaren 15eko Agindua bete beharko dira.

- E.8. **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:** Aurkeztu den dokumentazioa honako hau da:

- Eskaera orria.
- Jarduera proiektua, teknikari gaituak izenpetua (ingeniari zibila).
- Teknikari tituludun gisa aritzeko aitortpena.

- E.9. Jarduera Proiektuak ondorengo dokumentuak barnerraten ditu:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

- Memoria
- Planoak
- Eranskinak (instalazio elektrikoa, suteen aurkako babesa, ekoizpen hondakinen kudeaketa eta URA agentziaren ebazpena, besteak beste).

E.10. **JARDUERA SAILKATUA:** Ezarri nahi den jardueraren ezaugarriak dira:

- **ERABILERA:** industrial, urruneko kontroleko sistemak diseinatzea eta ekoiztea.
- **AZALERA** (Ekoizpen guneara): 637 m²
- **INSTALATZEN DEN POTENTZIA:** 48 kW. (beraz, >25 kW)

E.11. **JARDUERA-LIZENTZIA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinean ezarritakoaren arabera, jarduera lizentzia beharko dute, besteak beste, jarduera eta instalazio sailkatu hauek:

Lantegiak eta askotariko prestalekuak (arotzeria, galdaragintza, muntaia, mekanizazioa, okindegiko prestalekuak, pastelgintza, catering-a...), instalatutako potentzia osoa (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiztapenari dagokiona izan ezik) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta produkziarako berariaz jarritako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.

E.12. Beraz, DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL, SL enpresak aurkeztutako jarduerak jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatuetarako zehazten den prozedura bete beharko du.

Horrenbestez, 3/1998 Legearen 59. artikulua ezartzen duen bezala, Udalak ezar ditzakeen baldintzak ukatu gabe, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu neurri zuzentzaileak.

Txostena loteslea izanen da udal agintaritzarentzat.

E.13. 2022ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren txostena jaso da Udalean, telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerakoren jarduerari dagokion neurri zuzentzaileen ezarpenari buruzkoa.

Helarazitako txostenak zenbait baldintza ezartzen ditu. Horien artean honako hauek:

- *Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.*
- *Pabiloiaren zorua iragazgaitza izan beharko da.*
- *Jarduera pabiloiaren barruan burutuko da beti eta zaratak ahalik eta*



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

gehien murrizteko eran. Pabiloiko atepak sartu irtenak ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.

- *Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan (...).*
- *Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:*
 - *Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.*
 - *Komunetako uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.*
- *Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorerara Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.*
- *Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.*
- *Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.*
- *3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59.2 atalak agintzen duenez, zuzenketak ezartzeak Udala Agintaritza behartu egiten du, honek jardueraren lizentzia emateko administrazio ekitaldian sartu behar dituelarik. 64. 1 artikulua arabera Udalei dagokie jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena.*

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren txostena txosten honekin batera erantsi da, interesdunak horren berri izan dezan eta behar diren neurriak har ditzan.

- E.14. **URA AGENTZIAREN EBAZPENA:** Ebazpenean adierazten denez, barne-egokitzapeneko obrak egingo diren eraikina polizia-eremutik kanpo kokatuta dagoenez, ez da beharrezkoa izango administrazio hidraulikoaren baimena obra horiek egiteko.

F. ONDORIOAK

- F.1. Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik eta txosten honetako A eta B ataletan esandakoa kontuan izanik, teknikari honen iritziz, eta bestelako arrazoi



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

juridikoak salbu, bidezkoa da:

- DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL enpresari jarduera sailkaturako lizentzia ematea, Atallu industrialdean (Atallu kalea, 2-4) telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako.

F.2. Halaber, interesdunari jakinarazi behar zaio:

- 59 bis artikuluan ezartzen den bezala, jardueraren baldintzak betetzen ez badira, lizentzia indarrrik gabe geldituko dela.
- Jarduera hasteko, aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu beharko da, instalazioak hasteko prestatuta daudenean.
- Jarduera gaitzeko behar diren obrak egiteko, beharrezkoa izango da udal lizentzia eskatzea, eta, hala badagokio, lehen erabilerarako lizentzia lortzea.

JARDUERA EZARTZEKO PABILOIA ERABERRITZEA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 31ean, ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko, pabiloia eraberritzeko obretarako udal baimena ematea erabaki zuen.

Ondoren berriz, 2022ko irailaren 13an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera ezartzeko ONDAREGI XXI, S.L. enpresak eraberritu duen pabiloiari lehen erabilera baimena ematea erabaki du.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: DANFOSS POWER SOLUTIONS TELECONTROL. S.L. enpresari, Atallu kalea 2-4an telekomunikazio-ekipoen ekoizpenerako jarduera sailkaturako lizentzia ematea ondorengo baldintzapean:

- Jarduera hasi aurretik **ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENA** aurkeztu beharko zaio Udalari, instalazioak erabiltzeko prestatuta daudenean.
- 3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59 bis artikuluan ezartzen den bezala, jardueraren baldintzak betetzen ez badira, lizentzia indarrrik gabe geldituko dela.
- Jarduerak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, hala nola Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Osasun Sailak ezarritakoak, ondokoak dira hitzez hitz:

- Sukaldea ez dago jantoki/self service gunetik behar adina isolatuta.
- Garbiketa eremua self service gunetik behar bezala isolatuta egon beharkoda, kutsadura edo zipriztinak saihesteko, eta aireztapen egokia eta nahikoaizan beharko du.
- Biltegia sukalde eta prestaketa esparrutik erabat bereizi behar da.
- Establezimenduaren arduradunak jantoki kolektiboaren jardura jakinaraziegin beharko du tramitazio elektronikoaren bidez edo Osasun Publikoko Tolosa-Goierri eskualdera bertaratuz (Nafarroako Etorbidea,6 - 20400 Tolosa; Tel. 943 02 40 24).
- Aurrez aipatutakoez gain, ondoko araudian jasotako baldintzak bete beharko dira:
 - 3484/2000 Errege Dekretua, abenduaren 29koa (EAO 11, 2001-01-12koa), janari prestatuak lantzeko, garraiatzeko eta saltzeko higienearauak ezartzendituena.
 - Agindua, 2002ko martxoaren 15ekoa, Osasun sailburuarena, jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ezarritakoak ondokoak dira hitzez hitz:

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berriazko arauak bete behar dira.
2. Sustatzaileak jardura ezarriko deneko partzelako lurzorua erabiltzeko gaitasuna deklaratzeko duen Ebazpenean ezarritakoak bete beharko ditu.
3. Etorkizunean partzelaren mugen barruan hondeaketak edo lur mugimenduak aurreikusten dituzten obrak burutuko badira, sustatzaileak Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeak ezarritako dagokion lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa izapidetu beharko du.
4. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 22.2. artikulua adierazitakoaren arabera, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udalari eta Erkidego Autonomoko ingurumen- organoari.

5. Pabiloiaren zorua iragazgaitza izan beharko da.
6. Jarduera pabiloiaren barruan burutuko da beti eta zaratak ahalik eta gehien murrizteko eran. Pabiloiko ateak sartu irtenak ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.
7. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zaratafoku berriei aplikatzeko muga-balioak eta bat datorren gainontzeko araudikoak beteko ditu.
8. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
9. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez
10. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - Komunitateko uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.
11. Aipatutako isurketak baino ez dira existituko.
12. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.
13. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarri- takoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
14. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.

15. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da. Sortzen diren hondakinak uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.
16. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastiko, paper, kartoi, egur, beira hondakinak, hondakin metaliko ez arriskutsuak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakin ez arriskutsuak etab.), hondakinak lehen aldiz kudeaketa-instalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du. Europako Hondakinen Zerrendan (EHZ) ispilu sarrera bat daukaten hondakinak arriskutsuak edo ez arriskutsuak diren jakiteko karakterizatu egin beharko dira eta emaitzaren arabera era egokian kudeatu.
17. Makineriaren mantenu lanetako olioien hondakinak, konpresoreko purgetako urak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakin arriskutsuak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko, otsailaren 20ko, 110/2015 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teilatupean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitzeko sistema bat edukiko dute.
18. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurre- komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

19. Sortutako hondakin arriskutsuak mantenu lanetan hirugarren batzuek sortutakoak besterik ez badira, eta hauek hondakinak euren kargu hartu eta eurenak balira bezala kudeatuz gero, puntu hori bi aldeek sinatutako kontratuan agertu beharko da. Kontratu hori da uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan adierazitako komunikazioa egitetik salbuesteko eskaera egiteko enpresak aurkeztu beharko duena.
20. Sustantzia arriskutsuen biltegiatze eta manipulazioa euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik eta segurtasun datuen fitxen argibideak jarraituz egingo da. Material horientzako iragazgaitz, erresistente eta eraldaezin izango den lurzoru gainean biltegiatuko da, euri urekin kontaktua edukitzea ekidingo da eta isurketak atxikitzeo sistema bat edukiko du.

Isurketa baten ondoren atxikitzeo kubetoak berehala hustuko dira eta isuritako likidoa leku egokian biltegiatuko da berriro.

Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
21. Likido kutsakorren isuriak sor ditzaketen makineria eta instalazioek likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko dute eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegiatuko dira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.
22. Titularra PCBak dauzkaten edo eduki ditzaketen aparatuen edukitzailea baldin bada, transformazio zentroaren edukitzaile kasu, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak, eta hauek dauzkaten aparatuak eliminatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, abuztuaren 27ko, 1378/1999 Errege Dekretuak adierazitako baldintzak bete beharko ditu haien kudeaketa egokia burutzeko.
23. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.
24. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
25. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/09/13

26. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
27. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
28. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59.2 atalak agintzen duenez, zuzenketak ezartzeak Udal-Agintaritza behartu egiten du, honek jardueraren lizentzia emateko administrazio ekitaldian sartu behar dituelarik. 64. 1 artikulua araberako Udalei dagokien jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena.

BIGARRENA: Aldez aurretik jarduera baimena emateagatik indarrean diren ordenantza fiskalek ezartzen duten Udal zerga ordainduko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- UDAL ERROLDAKO PIKAOLA KALEAKO ETXEBIZITZEN ZERRENDA ONARTZEN DUEN 2022-DEKR-0356 DEKRETUA BERRESTEA.

Batzarkideek 2022ko abuztuaren 18ko 2022/866 dekretua aho batez berretsi dute.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.